

Galdera

(Lauki honetako euskarazko itzulpenak galdegilearen proposamenak dira)

1.

¡Ey, Joseba, ¡acompañanos! Le invita Peru. Eh, no, gracias, ahora no me apetece.

Aizu, Joseba, lagunduiguzu! Gonbidatu du Peruk. Eh, ez, eskerrik asko, orain ez daukat gogorik.

Zalantza: nola eman euskaraz **eh** hori.

2.

¡Ah, y esta es su amiga Jana!

Ah, eta hau Jana bere laguna da!

Zalantzak: nola eman euskaraz **ah** hori, eta “*hau Jana bere laguna da*” edo “*hau bere laguna Jana da*”

3.

¡Pues mi personaje te ataca y te quita una vida! ¡Ja!

Ba, nire pertsonajeak eraso egin dizu, eta, taka! bizi bat kendu dizu!

Zalantza: *bizi bat / bizitza bat*.

Erantzuna

Gure iritzian, hauek dira aukera egokiak (elkarrizketetan erabiltzen diren marra luzeak tartekatu ditugu):

1. — *Aizu, Joseba, zatoz gurekin!* — *gonbidatu du Peruk* — **E**, *ez, eskerrik asko, orain ez daukat gogorik.*

Ikus [Euskaltzaindiaren Hiztegia](#)

e²

interj. Deitzeko edo arretea erakartzeko hitza. **E**, *Joseba!*

2. — **A**, *eta hau Jana da, bere laguna.* / — **A**, *eta hau bere lagun Jana da.*

Ikus [Euskaltzaindiaren Hiztegia](#)

a²

interj. Oi! *A!*, *ikusi banu.*

a zer interj. (Artikulua edo zenbatzaile zehaztua hartzen duen izen sintagma baten ezkerrean, hark adierazten duena azpimarratuz). *A zer itsutasuna! A zer lasaitua etorri zitzaiona! A zer muturrekoa eman didan! A zer bi geunden gu!*

Beharbada, lehenengoa naturalagoa da; baina bigarrena ere egokia da, artikulurik gabe; izan ere, halako aposizioak aurrean jar daitezke. Ikus eredu batzuk [hemen](#).

3. — *Bada, nire pertsonaiak eraso egin dizu, eta, taka,* **bizi bat** *kendu dizu.*

[Pertsonaia](#)